

INDUSTRIA PLANA PLAN DE INDUSTRIA EUSKADI ——— 2030

INDUSTRIA +
INDUSTRIA ↑
ISURI -

+ INDUSTRIA
↑ INDUSTRIA
- EMISIONES



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Mikel Jauregi Letemendia

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua

Industria Euskadiren iragana, oraina eta etorkizuna da. Hori da denok partekatzen dugun ziurtasuna, edozein dela ideologia, adina, jaioterria edo ikasketa-maila ere. Denontzat da industria gure aurrerapen, aberastasun, ongizate eta kalitatezko enpleguen iturria.

Industria Plan honek horixe islatzen du, eta etorkizuneko belaunaldientzat kalitate handiko lanpostuak sortzeko oinarriak eratzea du helburu: enplegu egonkorra eta ondo ordaindua, gure seme-alaben nahiei erantzungo diena eta haien potentziala erabat Euskadin garatzeko aukera emango diena.

Plan hau ziurgabetasunez betetako une historikoan aurkeztu dugu. Europa lehiakortasuna galtzen ari da Estatu Batuen eta Txinaren alboan, eta arriskua du teknologia- eta industria-taula globaletik kanpo gelditzeko. Letta eta Draghi txostenek egoera horretaz ohartarazten gaituzte eta Trump administrazioaren merkataritza- eta segurtasun-politikak are gehiago areagotzen du gure kalteberatasun-egoera.

Euskal industriak bizi izan ditu une zailagoak: birmoldaketa handiak eta langabezia-tasa altuak. Hala ere, inoiz ez ditu izan hainbeste fronte zabalik (eraldaketa digitala eta trantsizio energetikoa) eta hain koordinatu geopolitiko eta komertzial aldakorrek (autonomia estrategikoa).

Ziurgabetasun ia erabatekoa bizi dugun une hauetan, Plan honek ziurtasunen alde egiten du: industria gehiago eta Europa gehiago.

Planak hiru jarduteko ardatz ditu, eta bat datoz Europarekin (industria gehiago, industria hobea eta emisio gutxiago), eta desburokratizazio eta sinplifikazio administratiboko agendarekin. Hori da datozen lau urteetan Europako berrindustrializazioari egingo diogun ekarpena; gure gaitasun teknologiko eta industrialak lur emankor dira, berrindustrializazio horretan protagonismoa irabaz dezagun. Industria Plan hau, hala, Europako Competitiveness Compass eta Clean Industrial Deal-ekin lotzen da.

Industria-politika ez da sektoriala, zeharkakoa da. Eusko Jaurlaritzako sailak elkarrekin lanean jarraituko dugu gure politika teknologiko industrialak egikaritzeko eta etorkizuneko belaunaldientzat kalitatezko enplegua sortzeko. Plan hau erabat garatzeko, gure zientzia- eta ikerketa-zentroen parte-hartze aktiboa behar da, bai eta Euskal Finantza Aliantzaren bidez gure finantza-muskulua aktibatzea ere. Ez dago garapen industrialik kapitalizazio teknologikorik gabe.

Plan honen berritasun nagusia da nola egikaritu den; Plan dinamikoa da, eta Proiektu Eraldatzaileak Euskadi mailako lankidetzak-aukerak dira, industria-sare berria sortzeko. Jaurlaritzaren zeregina da lankidetzak horretan laguntzea, eta exijitzea.

Ziurgabetasunaren aurrean, Herrialde gisa ditugun ziurtasunetan izan behar dugu konfiantza: industriaren eta lankidetzaren aldeko apustua, elkarlana.

Orain da unea eta guri dagokigu.

Laburpen exekutiboa. Industria Plana – Euskadi 2030

1. Gure etorkizun industrialia eta belaunaldi berrirako enplegua eraikitzen

1.1 Industria-politika globalen olatu global berria: autonomia estrategikoa, digitalizazioa eta deskarbonizazioa

Azken hamarkadan, munduko ekonomia nagusiek industria-politiken etapa berri bati ekin diote, autonomia estrategikoa indartzeko, deskarbonizazio-erronkei aurre egiteko eta eraldaketa digitala gidatzeko beharrak eraginda. Globalizazio berriaren bloke nagusietatik (AEB, Txina, Europa) politika aktiboak finkatzen dira inbertsioa erakartzeko, gaitasunak birlokalizatzeko eta funtsezko sektoreak sustatzeko, hala nola energia, mugikortasun iraunkorra edo adimen artifiziala. Euskadik testuinguru hau aukera bezela ulertu behar du.

1.2 Industria, Eusko Jaurlaritzaren politiken zeharkako eta lehentasunezko ardatza

2024-2028 Gobernu Programarekin bat etorritik, industria, herrialdeko zutabe estrategikoetako bat da. Kalitatezko enplegua sortzeko, lurralde-kohesioa bultzatzeko eta trantsizio handiak (berdea, digitala eta soziala) gidatzeko gaitasunak dituen funtsezko eragile bihurtzen da Euskadirentzat. Industria Plan hau bat dator Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) eta ekonomia lehiakor, jasangarri eta erresilientearen aldeko apustuarekin, non industria ez baita beste edozein sektore, baizik eta politika publikoen ardatz egituratzaile bat.

Industria Plana- Euskadi 2030, Eusko Jaurlaritzaren beste politika publiko batzuekin koordinatzeko etaosatzeko tresna gisa planteatzen da, eta XIII. Legegintzaldiko estrategia globalean txertatzen da. Haren funtzioa industria-politikarako esparru komun bat ezartzea da, beste plan sektorial batzuk ordezkatu gabe, baizik eta haien lerrokatzea eta integrazioa erraztuz. Planak lotura estua du 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin (ZTBP 2030), lehentasun estrategikoak eta teknologikoak partekatzen baititu.

Era berean, Plana estuki lotuta dago beste plan eta ekimen batzuekin, batez ere Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailarekin eta Elkarriketa Sozialaren Mahaiarekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Ogasun eta Finantza Sailarekin ere.

2. Europako industria-politikaren gakoak

2.1 Europa eraldatzen: Letta eta Draghi txostenen ikuspegi estrategikoa

Europako Batzordeak Enrico Lettaren eta Mario Draghiren esku utzi du kontinentearen etorkizun ekonomikoa eta industrialia birpentsatzeko ardura. Haren txostenak bat datoz Europako autonomia estrategikoa indartzeko premian, asmo handiko industria-politika digital, berde eta erresiliente berri baten bidez. Lettak ezagutzen eta berrikuntzan oinarritutako "bosgarren askatasuna" proposatzen du, eta funtsezko erreformak identifikatzen ditu erregulazioan, inbertsioan eta erresilientzia industrialean. Draghik, bestalde, lehiakortasun-galeraz, merkataritza globalaren beherakadaz eta presio geopolitiko gero eta handiagoaz ohartarazten du, eta berrikuntza, segurtasun ekonomikoa eta deskarbonizazioa proposatzen ditu berrindustrializazio-ardatz gisa.

2.2 Estatu Batuetako politika protekzionistaren aurreko estrategia

Donald Trump 2025ean presidentetzara itzuli izanak nazioarteko merkataritza-agertokia aldatu du. Ipar Amerikako protekzionismo berriak agerian utzi du merkataritza gero eta gehiago arma geopolitiko gisa erabiltzen dela.

Europako autonomia estrategikoa jada ez da helburu politiko bat, baizik eta segurtasuna eta autogaitasuna bermatzeko premia bat. Horretarako, gaitasun industrial propioak garatu behar dira, kanpoko mendekotasuna murriztu eta azpiegitura kritikoak babestu. Merkataritza-harremanak dibertsifikatzea eta teknologia eta industria indartzea funtsezkoak dira erresilientziarako.

2.3 Europako industria-politika indartsuago eta estrategikoago baten bidean

Lehiakortasunaren iparrorratz berriak (2025eko urtarila) hiru helbururen inguruan birdefinitzen du industria-politika:

- INNOVA: berrikuntza-arrakala ixtea eta ezagutza eta merkatua hobeto konektatzea.
- CLEAN: deskarbonizaziorako eta lehiakortasunerako ibilbide-orri bateratua.
- SAFE: kanpoko mendekotasunak murriztea, segurtasun ekonomikoa indartzea eta segurtasun- eta defentsa-politika erkidea bermatzea.

Helburu horiek bost ardatz horizontaletan egituratzen dira: erregulazio hobea, merkatu bakarra indartzea, kapital pribatua mobilizatzea, kalitatezko prestakuntza eta Europako, estatuko eta eskualdeko mailen arteko industria-politikak koordinatzeko tresna berri bat.

2.4 Industria Bultzatzeko Europako Tresnak

- IPCEI (Europako Interes Komunekeko Proiektu Garrantzitsuak), industria-proiektu estrategikoak finantzatzeko aukera ematen dutenak, estatu-laguntzen ohiko mugetatik harago. Beste funts eta programa batzuk - Innovation Fund, Hidrogeno Bankua, Connecting Europe Facility - Euskadi bezalako eskualdeentzako aukerak zabaltzen dituzte teknologia garbien, baterien, erdieroaleen edo azpiegitura kritikoen sektoreetan.

- Autonomia estrategiko irekiaren aldeko apustua: Batzordeak autonomia estrategikoko agenda bat definitu du, norberaren gaitasunak sendotzean oinarritua (Oinarritzko lehengaien plana, Sektore zibilaren, defentsaren eta espazialaren arteko sinergietarako plana, Segurtasunerako estrategia espaziala, - InvestAI ekimena Europako IA fidagarri bat garatzeko)

- Zero isuri garbiko industriaren aroa: trantsizio ekologikoa lehiakortasunerako motor gisa kokatzen da. Itun Berdearen Industria Planak (2023) eta Itun Industrial Garbiak (2025) arkitektura berria ezartzen dute industria deskarbonizatu baterako (Industria Net-Zeroko Legea, Lehengai Kritikoaren Legea, Merkatu elektrikoaren erreforma)

- Gainera, 100.000 milioi euro baino gehiago mobilizatuko dira teknologia garbietarako, elektrifikaziorako, zirkulartasunerako eta modernizazio energetikorako. Karbono-etiketa berriak, kontratazio publikoko irizpide ekologikoak eta deskarbonizaziorako banku espezifikoak proposatu dira.

- Araudia sinplifikatzea eta desburokratizatzea: 2025ek bultzada handia ematen diote araudia cggfusinplifikatzeari, "Europa sinpleagoa eta azkarragoa" komunikazioaren eta "Omnibus" hiru lege-paketaren bidez (finantza-iraunkortasuna, inbertsioa sinplifikatzea eta mid-caps eta paperezko izapideak ezabatzea).

3. Euskadiko egoeraren diagnostikoa

3.1 Euskal industriaren irudia

Euskadik industria-oinarri sendoa eta dibertsifikatua du. Industria-sektorea BEGd-aren % 24,2 osatzen du, Estatuko batez bestekoa baino askoz handiagoa, eta % 40 inguruko garrantzia du zerbitzu aurreratuak

barne hartzen badira. Beste alderdi batzuk ere aztertzen dira: espezializazioa, maila teknologikoa eta funtsezko sektoreak; nazioartekotzea eta konplexutasun ekonomikoa; garapen teknologikoa eta berrikuntza; eskualdeen arteko lankidetzeta eta Europaren posizionamendua; digitalizazioa; deskarbonizazio lehiakorra eta emakumeek industrian duten presentzia.

3.2 Euskal industriaren indarrak

Euskadik posizionamendu sendoa du industriaren arloan, bere lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa bultzatu duten funtsezko indargune batzuetan oinarrituta:

- Industria- eta ekoizpen-sare indartsu dibertsifikatua eta espezializatua
- Enpresen eta zentro teknologikoen lankidetzaren bidez garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzen dituen ekosistema
- EAEko industria-sarea, oso lehiakorak eta esportatzaileak diren enpresen kopuru handiarekin (txapeldun ezkutuak)
- Konplexutasun ekonomiko handia eta sektore estrategikoetan espezializazio handia dituen industria-sarea
- Lanbide-heziketako sare sendoa eta industriaren beharretatik hurbil dauden titulazio teknikoak
- Lankidetzeta publiko-pribatuaren kultura sendoa eta ondo artikulatua
- Ekonomia Ituna eta haren zerga- eta finantza-autonomia

3.3 Euskal Industriaren erronkak

Euskadik hainbat erronkari egin behar die aurre industriaren arloan, eta erronka horiek baldintzatu egingo dute etorkizunean lehiakortasuna mantentzeko eta indartzeko gaitasuna

- Gure traktzio-industrien enpresa-errotzea indartzea sektore estrategikoetan
- Euskadin erabaki-zentroak dituzten enpresa traktore gehiago dituzten enpresen batez besteko tamaina handitzea, eta gure ETEen batez besteko tamaina handitzea
- Gure industria-ehunaren dinamismoa areagotzea
- Talentua garatzea, arreta berezia jarrita emakumeengan, belaunaldi berriengan eta gaur egun gutxiegi ordezkatuta dauden kolektiboengan.
- Beste ekosistema industrial batzuekiko lotura indartzea.
- I+G+b arloan inbertsio pribatua eta publiko-pribatua areagotzea, lidergo teknologiko iraunkorra sendotzeko.
- Azpiegitura energetiko eta digitaletara sartzea, hazteko, berritzeko eta iraunkorrakoak izateko.
- Finantza-ekosistema indartzea, tresna eta operadore espezializatuen eskaintza zabalduz
- Lurzoru industrialaren eta logistikoaren erabilera birpentsatu eta berrantolatzea, haren eskuragarritasuna proiektu industrial eraldatzaileetara egokituz.

4. Industria Plana – Euskadi 2030: jarduera-ardatzak eta lehentasun estrategikoak

4.1 Europako esparruarekin eta haren apustu estrategikoekin bat etortzea

Europa bere etorkizun industrial birkonfiguratzen ari da, eta Euskadik aukera horren mailan egon behar du. Une erabakigarri bati egin behar diogu aurre, gure ongizatea, segurtasuna eta oparotasuna eraikitzeko erabili ditugun oinarriak berrikustera behartzen gaituen garai bati. Inoiz baino beharrezkoagoa da Europa indartzea eta finkatzea, kontinentearen eta planetaren bakeari, garapenari eta kohesioari asko lagundu

dion Europako proiektua indartzea. Gaur Europa Gehiagoren unea da: batasun handiagoa, asmo estrategiko handiagoa, etorkizun komunerako funtsezkoak diren eremuetan autonomiaz jarduteko gaitasun handiagoa.

Industria Plana – Euskadi 2030 ikuspegi horretan kokatzen da erabat. Ez da plan isolatu bat, Europako proiektua bultzatzeko ekarpen aktibo bat baizik, Batasunaren helburu handiekin bat datorren industria-politika batetik abiatuta.

4.2 Industria Plana – Euskadi 2030 jarduketa ardatzak eta lehentasun estrategikoak

Europako esparruan ezarritako aukerei eta erronkei behar bezala erantzuteko, Industria Plana – Euskadi 2030 15 lehentasun strategikotan eraikitzen da, 3 ardatz strategikotan eta zeharkako ardatz batean banatuta, eta horiek industria-eraldaketaren ikuspegi integrala islatzen dute egungo Europako testuinguruan.

INDUSTRIA GEHIAGO

1. Trakzio-enpresak errotzea
2. ETE industrialaren tamaina handitzea
3. Gure sektore estrategikoetako balio-kateak osatzea hainbat jardueraren bidez, start-up en garapena barne
4. Atzerriko inbertsioa erakartzea etorkizuneko potentziala duten sektoreetan
5. Gure enpresen nazioartekotzea sendotzea merkatu estrategikoetan

ISURI GUTXIAGO

1. Industria-jarduera deskarbonizatzea, lehiakortasunari eutsiz
2. Ekonomia zirkularretik eratorritako industria-aukera berriak garatzea
3. Berezko energia berriztagarrien sorrera sustatzea
4. Sare elektrikoaren gaitasuna eta malgutasuna areagotzea
5. Klima-alaketara egokitzea sustatzea

INDUSTRIA HOBEA

1. Enpresen teknologia-maila berritzailea handitzea
2. Adimen artifizialaren eta zibersegurtasunaren ezarpena bultzatzea
3. Azpiegitura fisiko eta digital aurreratuak sustatzea
4. Industriara talentu berria erakartzea eta garatzea
5. Kudeaketa aurreratua eta jasangarria sustatzea



Sinplifikazio administratiboa eta desburokratizazioa proiektu eraldatzaileen epeak % 30 murrizteko

4.3 Sektore estrategikoen definizioa

Euskadiko industria-sektoreak hiru kategoriatan sailkatu dira - IRABAZI, HAZI eta JAUZI - ikuspegi zorrotza eta datu objektiboetan oinarritzen. Lehentasun-irizpide hori modu progresibo eta dinamikoan aplikatuko da Industria Planaren eta haren tresna eta proiektuen gobernantzaren gaineko erabakiak hartzean. Sailkapen-irizpide horiek 3 tipologiari jarraiki aplikatu dira:

1. IRABAZI (Egungo industria-sektore traktoreak)

- Ekarpen handia Euskadiko Balio Erantsi Gordinari (BEG) eta Enpleguari
- Enpleguaren kalitate handia (egonkortasuna, prestakuntza, ordainsaria)
- Bolumen eta espezializazio esportatzaile handia = Produktibitate handia + Lehiakortasuna
- Intentsitate teknologiko ertaina-handia
- EBren industria-politikaren lehentasunekin eta finantzaketa-programekin bat etortzea

2. HAZI (Etorkizunerako trakzio-potentziala duten sektoreak)

- Intentsitate teknologiko handia + gaitasun zientifiko-teknologikoak
- Batzordearen lehentasunetan eta Europako programetan lehentasunezko sektoretzat hartzea.
- Datozen hamarkadetan merkatu globaletan hazteko ahalmen handia izatea
- IRABAZI azpisektorea, etorkizunerako potentzialarekin

3. JAUZI (Merkatuan lidergoa izan dezaketen beste sektore batzuetako enpresak)

Beste edozein sektoretako enpresak, baldin eta proiektu eraldatzaileak planteatzen badituzte eta, gutxienez, honako dimentsio hauetako batean, merkatuan, jauzi kualitatiboa eragiten badute: teknologia, berrikuntza, nazioarteko proiektzioa, jasangarritasuna. Horrelako proiektu eraldatzaileak edozein sektoretan sor daitezke. Haien abiapuntua ez ezik, egiturazko eraldaketa-potentziala ere bereizten ditu, eta horrek eragin argia eta zabala du produktuen eta/edo zerbitzuen bereizketan, lehiakortasuna eta merkatu-kuota irabazteko. Ezkutuko txapeldun berriak ekarriko dituzten ETEen proiektu arrakastatsuak egongo dira.

Hurrengo taulan, IRABAZI eta HAZI tipologietan bildutako sektoreen zerrenda aurkezten da, Plana egiten ari den egunean.

Mota	Sektorea	BEGd-ren ekarpen handia	Esportazio erakarpn handia	Enplegu-ekarpen handia	Teknologia-intentsitate berritzaile handia	Europeako Batzordearen apusuta	Hazkunde potentzial handia
IRABAZI	Automobilgintzako osagaiak	✓	✓	✓	✓	✓	
	Mugikortasun jasangarria	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Fabrikazio aurreratua	✓	✓	✓	✓	✓	
	Energia	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Metalurgia	✓	✓	✓		✓	

HAZI	Aeroespaziala				✓	✓	✓
	Biosanitarioa				✓	✓	✓
	Soluzio digital aurreratuak: Zibersegurtasuna, AA eta Quantum				✓	✓	✓
	Sare adimendunak eta biltegiak				✓	✓	✓
	Erregai berriztagarriak				✓	✓	✓

Eraldaketa digitala eta/edo industria-ehunerako trantsizio energetikoa ahalbidetzen duten enpresen edo sektoreen proiektuak ere eraldatzaile gisa kategorizatuko dira.

Tresna dinamikoa da, eta aldian-aldian berrikusi ahal izango da, sektoreek izan duten bilakaeraren eta informazio berriaren arabera. JAUZI kategoriaren izaera irekiak aukera ematen du berrikuntza disruptiboa egungo lehia-dinamiken bilakaerarako bide gisa txertatzeko.

5. Planaren operazionalizazioa Proiektu Eraldatzaileen bidez

5.1 Benetako eraldaketari ekiteko paradigma-aldaketa

Euskadiko industria une erabakigarrian dago, eta industria-politika egiteko modua berritzea eskatzen du. Aurreko planei esker, lurraldeak industria modernoa, lehiakorra eta ibilbide arrakastatsua du, 90eko hamarkadan hasitako kluster politika aitzindariak markatua. Politika horrek lankidetzak publiko-pribatua eraldatu zuen, eta lehiakortasunaren funtsezko zutabe gisa finkatu zen.

Hala ere, gaur egungo erronkak aurrekaririk gabeko konplexutasunekoak dira, eta horrek ikuspegi-aldaketa eskatzen du. Industria Plana - Euskadi 2030k ez da helburuak definitzera eta laguntza-programa tradizionalak (mantentzen direnak) hedatzera mugatzen; aitzitik, Proiektu Eraldatzaileak gauzatzean oinarritutako gobernantza-modu berri baten aldeko apustua egiten du. Proiektu hauek kolaboratiboak, arinak eta moldagarriak izan nahi dute, eragile eta gobernu-maila anitzak inplikatur.

Proiektu horiek lankidetzakoak, arinak eta moldagarriak izan nahi dute, eta hainbat eragile eta gobernu-maila inplikatu nahi dituzte.

Eredu berri horretan, klusterrek, 17 Klusterrak Dinamizatzeko Erakundeek dinamizatuta, funtsezko zeregina beteko dute sektoreko lankidetzak eta eraldaketa-palanka gisa, eta euskal industria-politikaren etapa berri batean duten eginkizun estrategikoa indartuko dute.

5.2 Proiektu Eraldatzaileak

Industria-politikako jardunbide onenekin bat etorriz, ikuspegi proaktiboa hartu da Planaren lehentasun estrategikoak babesteko dituzten Proiektu Eraldatzaileak bultzatzeko. Lidergo publikoa edo pribatua egongo da proiektuen izaeraren arabera, baina guztiek zeharkako bokazioa eta lankidetzak publiko-pribatua izango dute. Horrela, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko baterako sorkuntza proaktiboaren printzipioa finkatzen da, funtsezkoa baita irtenbide berritzaileak garatzeko eta gero eta konplexuagoak diren erronkei aurre egiteko.

Proiektu Eraldatzaile bakoitzak laguntza-premia desberdinak izango ditu, eta, kasu bakoitzean, laguntza-tresnak, erregulazio-gaiak, partaidetza-hartuneak eta abar ekarpen publikoa maximizatzeko nola lerrokatu daitezkeen aztertuko da. Horrela, proiektu bakoitzari laguntzeko portfolio bakarra sortuko da.

Proiektu Eraldatzaileen ezaugarria da mugarri espezifikoa izatea, argitasunez ezarritako helburuekin, metodologia operatibo zehatzekin eta alde zehatzetik identifikatutako eragileekin. Proiektu horiek palanka estrategiko gisa eratzeko dira, ekoizpen-sarean eraldaketa estruktural eta jasangarriak aktibatzen bideratuak, lehentasun estrategikoekin lerrokatuz eta egitura-aldaketak sortuz produkzio-sisteman eta lankidetzaren publiko-pribatuko dinamikan.

Jarraian, dagoeneko identifikatuta dauden Proiektu Eraldatzaileen adibide batzuk aurkezten dira:

Proiektu Eraldatzailea	Helburua
ESG Euskadi	ESG ebaluazio-sistema bat garatzea eta ezartzea 2026an, euskal ETEek jasangarriak direla eta lehiakortasuna irabazi ahal izateko.
Euskadi: Climate Change adaptation living lab	Bost jardura erakusle garatzea 2028ra arte, Euskadi hobeto prestatuta egon dadin klima-aldaketaren ondorioen aurrean
Robotikako Soluzio Aurreratuak Zentroa	Soluzio robotiko aurreratuak probatzeko eta baliozkotzeko espazio bat sortzea 2027an.
Grid4Industry	2026an enpresa-aliantea bat sortzea, azken belaunaldiko ekipamendua garatzeko, sare elektrikoa modernizatu ahal izateko.
Deskarbonizazio-harana	2032rako industria deskarbonizatzeko azpiegiturak garatzea, bai CO2 hartu eta balorizatuz, bai hidrogenoa erabiliz, ur birziklatuko eta oxigenoko sare batez osatuta.
Lurzoru industrialaren/terziarioaren erreserba estrategikoa	Garapen tekno-industrial berriarentako 2.850.000 m ² jartzea, eta 2028rako 5.000.000 m ² lur berri gehitzea parke teknologikoetan.
Motor aeronautikoaren arkitektura berriak	Aeronautikan enpresa-lankidetzarako akordioa formalizatzea, erregai jasangarriak erabiltzen dituzten hegazkinentzako motorrak eta teknologiak garatzeko 2026an.
Emakumea Industrian	2026an emakumea industrian sartzeari buruzko kontzientziazio-kanpaina bat abiaraztea.

6. Aurrekontua

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetako Industria Plan berriak, azken urte honetan sustatutako tresna gehigarriekin batera, 3.900 milioi inguru mobilizatuko ditu 2025 eta 2028 bitartean produkzio-garapenerako. Baliabide horiek, Aldundiek eskainitakoei eta Estatuko eta Europako funtsen bidez historikoki lortutako baliabideei gehituta, Euskadiko BPGaren % 2ko inbertsio publikoa batuko dute urtero, eta, horrela, posizio sendo batean kokatuko gara Draghi txostenaren ondorioz abiarazitako Europako produkzio-eraldaketa gidatzeko.

Halaber, inbertsio publiko horrek 12.000 milioi euroko inbertsio pribatua eragingo du Euskadin, eta, horrela, 16.000 milioi euro mobilizatuko dira legealdian zehar.

Estrategia horren zutabe nagusietako bat Euskal Finantza Aliantza da, Ogasun eta Finantza Sailaren eta Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren artekoa. Industria Plana – Euskadi 2030 espirituaren ildotik, aliantza hori lankidetzat publiko-pribatuko ekimen aitzindaria da, eta Euskadin dauden finantza-erakunde eta inbertsio-funts nagusiek partaidetzat dute. Eusko Jaurlaritzak 1.200 milioi (1.000 milioi finantzaketa berritik eta 200 milioiren jatorria Finkatuz izanik) baliabide publikoz hornituko ditu Proiektu Eraldatzaileei laguntzeko. Ahalegin horrek aurrekaririk gabeko jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa ekarri du herrialdearen azken aldiko industria-politikara.

Finantziazio publikoa	Lau urterako ekarpen zenbatetsia
- Industria, Trantsizio Enegetikoa eta Jasangarritasun saila	2.100 M€
- Euskal Finantza Aliantza	1.200 M€
- Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk	600 M€
GUZTIRA	3.900 M€

7. Gobernantza, Ebaluazioa eta Egokitzapen Estrategikoa

Plana tresna bizia da, egungo ziurgabetasun-testuinguruan gertatzen ari diren etengabeko aldaketetara egokitzeko gaitasuna duena. Horretarako, ebaluazioa eta ikaskuntza dinamikoa erraztuko dituen gobernantza behar da, ikaskuntzak denbora errealean identifikatu behar dira eta estrategia egokitu behar da beharrezkoa denean.

Planaren gobernantza globalak hiru maila nagusitako organoak izango ditu:

- Industriaren Euskal Kontseilua: Ordezkaritza mailan, 2025ean ezarritako "defentsa industrialeko mahaia" organo berri horretarantz aldatuko da, "garapen industrialeko" estrategia bat ezartzeko funtsezko gune gisa.
- Planaren Batzorde Estrategikoa: Maila betearazlean eta zuzendaritza politiko-teknikoan, *ad hoc* Batzorde Estrategiko bat eratzen da, planaren ezarpenari eta bilakaerari buruzko etengabeko hausnarketa egingo duena, adimen estrategikoko hiru tresnek lagunduta:

1. Aginte-aula estrategikoa: 6 adierazle headline, Planaren hiru ardatzekin lerrokatuta, Planaren bizitzarako helburu finkatuekin, eta bere aurrerapena osotasunean monitorizatzeko adierazle konposatuekin.
 2. Aginte-aula hedatua: 30 adierazleko multzoa, bi lehentasun estrategiko bakoitzeko, Planaren jarraipen operazionala babesteko eta aginte-aula estrategikoaren helburuen irismenerako orientazio eraginkorra ziurtatzeko.
 3. Proiektuen eta programen mapa bizia: tresna dinamikoa ekimen bakoitzaren egoerarekin, fasearekin eta ekarpenarekin.
- Idazkaritza Teknikoa (SPRI): maila operatiboan, SPRIk, euskal industriari laguntzeko programa nagusiak gauzatzen dituen agentzia den aldetik, koordinazio-nodo tekniko gisa jardungo du Klusterren Erakunde Dinamizatzaileen (KED) eta Zentro Teknologikoen lankidetzarekin.

